

Donostia, 2022ko apirilaren 22a

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

### DONOSTIAN BERRIZ ERE ZEZEN-KORRIDAK EGITEAREN GAINEKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta DONOSTIAN BERRIZ ERE ZEZEN-KORRIDAK EGITEAREN gaineko KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, UDALBATZAREN OSOKO BILERAN EZTABAITZATEKO.

### JUSTIFIKAZIOA

COVIDak sortutako pandemia dela eta, azkeneko bi urte hauetan ez da Aste Nagusirik ospatu Donostian. Eta, beste gauza askoren artean, zezenketarik ere ez izatea ekarri du horrek.

Ilunbeko plaza berritu eta aldatu egin dute haren zorua; eta, beraz, orain lasai asko erabil daiteke hura gauza askotarako. Hala ere, prentsan argitaratu da dagoeneko alokatuta dagoela hura, eta abuztuaren 13an, 14an eta 15ean zezenketak egingo dituztela han.

Batzordean interpelatu eta alkateak erantzun zuen Udalaren ekipamendu bat dela Ilunbe, prezio publiko bat jarrita duena, eta baten batek instalazio hura legezko jarduera bat egiteko hartu nahi badu, dagokion prezioa ordaindu eta libre duela hala egitea (zezenak izan, kontzertuak izan edo bertsolariak izan); zezen-korriden sustatzailea prest dagoela Udalbatzak jarritako prezio publikoa ordaintzeko, eta hala egingo duela, eta ikusi nahi duena joango dela ikustera; eta ez zela horri buruzko iritzia ematen hasiko.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako irizpenaren arabera, Udalak du bere eraikin bati zer erabilera eman nahi dion erabakitzeko eskumena, zeren eta, haren arabera, zilegi baitu pabilioiaren erabilerak zehaztea, eta herritarrek ez dute eskubiderik halako erabilera jakin bat ematea exijitzeko, Udalari dagokio-eta ahalmen hori, udalen autonomiaren arabera, eta ahalmen horren erabilera ez daukate nahitaez urritu edo baldintzatzerik herritarren iritziek, eta ezta Epaitegien egokitasun-irizpideek ordeztu ere.

Horiek horrela, hauxe da guk aurkeztutako

## KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio atzera egiteko Illunbe alokatzeko horretan, 2022ko abuztuaren 13an, 14an eta 15ean zezenketarik ez egiteko han.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio berriz begiratzeko Illunbe erabiltzeko irizpidea, eta beste aukera batzuk bultzatzeko hura erabiltzeko.
3. Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari eskatzen dio kontzientziazio-kanpaina batzuk sustatzeko animaliei tratu bidezkoa eta etikoa emateaz.

Sinatua: Aitzole Araneta

*Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea*